Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Inazio Madinabeitia Irizar

Bergara, Gipuzkoa (1922)



Aurkibidea

Biografia



Inazio Barrenkalean jaio zen, lau anai-arrebatatik bigarrena. Aita Basalgo auzoko Aristizabal baserrikoa zen, eta ama, berriz, Oñatiko Olabarrieta auzoko Ugarte baserritik etorritakoa. Herriko eskolan ibili zen gerra hasi zen arte. Sei urte zituela, zirkuko lehoi batek larriki atzaparkatu zuen. Gerra aurretxoan Larrañaga zapatagintza tailerrean hasi zen lanean. Gerra denboran “Conde del Valle y marqués de Valzola”ren Bergarako Santa Ana jauregian jardun zuen “paje” (morroi) lanetan. Gero udaletxean hasi zen lanean. Alondegian, zergak kobratzen, hiltegiko pisaketa lanetan eta abarretan jardun zuen hogei urtez, eta gero “Hijos de Arturo Narbaiza” ehungintza lantegira joan zen lanera. Zapatarikua auzoko Karmen Arriaranekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten.

Zintak

BER-301

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2011-01-05
- **Iraupena**: 71 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Aita, hainbat lanetan ibilia: ikatza eta ardoa saltzen

- **Erref**: BER-301/003
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:02:26. **Bukatu**: 00:05:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ama Oñatikoa. Aita Bergarakoa, Ariztizabal baserrikoa zen, Basalgo auzokoa. Kalera joan zen bizitzera, eta hainbat lanetan ibili zen: ikatza saltzen, ardo denda txiki bat jarri zuen Zubietan, Correos-eko garraiolari... Lau anai-arreba ziren. Anaia jesuita joan zen.

2. Beheko eta goiko estazioak

- **Erref**: BER-301/004
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:05:16. **Bukatu**: 00:08:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Bergaran bi tren geltoki zeuden: goikoa eta behekoa. Trenak buelta handia ematen zuen goiko estaziora iristeko; anekdota kontatzen du. Antzuolatik Mekolaldera zihoan trena.

3. Herri eskolan gerra hasi zen arte

- **Erref**: BER-301/009
- **Iraupena**: 0:04:03. **Hasi**: 00:10:21. **Bukatu**: 00:14:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Herri eskolan ibili zen, goiko plazan (gaur egungo epaitegian). 40 bat ziren gelan. Del Barrio, Basterra, Azpiazu... maisuak. Errepublika garaian Del Barrio egurtu egin zuten, eta ordezkoa jarri zuten. Gerra hasi arte ibili zen eskolan. Errepublika garaiko eskola.

4. Eskola garaiko jolasak

- **Erref**: BER-301/010
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:14:24. **Bukatu**: 00:15:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Eskola garaiko jolasak. Futbolean eta pilotan ibiltzen ziren. Mutikoak bakarrik zebiltzan eskolan; neskak frontoiko eskolara joaten ziren, eta auzoetan ere bazeuden.

5. Lehoiak atzaparkada eman zion

- **Erref**: BER-301/012
- **Iraupena**: 0:04:26. **Hasi**: 00:15:40. **Bukatu**: 00:20:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Sei urte zituenean, zirkoa joan zen Bergarara. Kamioietan joan ziren. Lehoiak besotik heldu zion. Aitari zaldiak ihes egin zion, lehoien usainarengatik edo. Zabalanera eraman zuten, eta han artatu zuten. Mujikak egiten zizkion kurak. Egunkarian agertu zen albistea, baina beraiek ez zuten erosten, eta ez zuen ikusi.

6. Gerra garaian Bergaran geratu ziren

- **Erref**: BER-301/015
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:21:23. **Bukatu**: 00:23:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:
Eskola bukatu ostean gerra hasi zen. Solfeora joaten zen; saxofoiarekin ibiltzen zen bera. Gerrarekin utzi egin behar izan zuen. Etxean egon ziren. Osabaren etxera joaten ziren. Basalgoko Izarralde baserria.

7. Bergara erasotua, gerra garaian

- **Erref**: BER-301/016
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:23:59. **Bukatu**: 00:25:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra garaian bonbak bota zituzten plazan, eta Algodoneran ere bai. Nazionalak zeuden Bergaran. Anaia ikusmen txarra zeukalako libratu zen gerrara joatetik.

8. Soldadutza Ferrolen

- **Erref**: BER-301/018
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:25:33. **Bukatu**: 00:28:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Bera soldadu egon zen, gerraostean. Marinan eman zuen izena, boluntario, Arizmendi lagunarekin batera. Ferrolera joan ziren, trenez. Bi urte egin zituzten han, aurreko kintakoek baino gutxiago. Madrilen ere egon zen.

9. Paje moduan, kondearenean

- **Erref**: BER-301/020
- **Iraupena**: 0:04:02. **Hasi**: 00:29:06. **Bukatu**: 00:33:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Larrañaga zapata tailerrean hasi zen lanean, gerra aurrean. Gero Conde del Valleren etxera joan zen, paje moduan. Iñigo deitzen zioten, kondeak berak Ignacio zeukalako izena. Bere ohea egiten ikasi zuen han. Alemana zen "ama de llaves". Alemanek batzarrak egiten zituzten han. Bere lanak zeintzuk ziren.

10. Kondearen etxeko langileak

- **Erref**: BER-301/021
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:33:08. **Bukatu**: 00:35:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Kondearen etxeko langileak: bi paje, bi sukaldari... Ermita ondoko etxean Etxaniz bizi zen, lorazaina. Ermitan, San Martin de Berriotxoak egindako konfesalekua zegoen.

11. Kondearen kapoiak

- **Erref**: BER-301/023
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:35:34. **Bukatu**: 00:38:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Conde del Valleren kontuak. Sotomayor dukearekin harreman ona zuen. Baserriak zeuzkan, eta maizterrek kapoiak eramaten zizkioten, eta berak batera eta bestera bidaltzen zituen. Soldatak emateko orduan jenio txarreko jartzen zen kondea.

12. Bi urte kondearenean

- **Erref**: BER-301/026
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:39:55. **Bukatu**: 00:42:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Bi urte egin zituen Santa Ana jauregian, beheko kondearen etxean, lanean. Gauez irten, eta dantzara joaten ziren. Gerra denbora zen, eta jeneralak ere joaten ziren bisitan.

13. Alhondigan lanean

- **Erref**: BER-301/027
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:42:22. **Bukatu**: 00:46:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Kondearen etxetik udaletxera joan zen lanera. Soldadutzatik bueltan ere jarraitu zuen Udalarentzat lanean, alhondigan. Pisatu egiten ziren produktuak. Hiltegira ere joaten zen, ganadua pisatzera, zerga kobratzeko. 20 urte egin zituen udal langile moduan, eta gero Mekolalden hasi zen lanean, Narbaizanean.

14. Narbaiza ehun lantegian lanean

- **Erref**: BER-301/028
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:46:06. **Bukatu**: 00:48:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Arturo Narbaiza ehun lantegian hasi zen, Mekolalden. Tindategia ere bazuten. Tavesa sortu zen gero. Narbaizan ofizinan egon zen bera.

15. Lapurreta baten lekuko, 1971. urtean

- **Erref**: BER-301/029
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:48:00. **Bukatu**: 00:50:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
ETAk lapurreta egin zen 1971. urtean banku batean, eta bera hantxe zegoen, Narbaizako dirua eramatera joanda. Deklaratzera joan behar izan zuen gero, Donostiara.

16. Guardia Zibilaren miaketa

- **Erref**: BER-301/030
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:50:42. **Bukatu**: 00:52:45

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Lapur usteko batzuk sartu ziren Narbaizanean, armatuta, eta sekaderoan ezkutatu ziren, baina harrapatu egin zituzten eta kanpora atera. Guardia zibilak ziren, eta miaketa bat zen.

17. Txikiteoa San Antonion, kantari

- **Erref**: BER-301/034
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:53:55. **Bukatu**: 00:56:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:
Kanturako zaletasuna zuten. Igandetan mezan kantatu, eta gero txikiteoa egiten zuten San Antonio aldean. Denetik kantatzen zuten. Euskaraz ere bai, arazorik gabe, gerraostea izan arren. "El día del exclavo" egiten zuten, baina zarat handirik gabe; zigorrik ez zuten sekula izan (beste batzuek bai).

18. Aguazilak eta serenoak

- **Erref**: BER-301/035
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:56:40. **Bukatu**: 00:58:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Aita aguazila izan zen, ardoa eta ikatza saltzen ibili ostean. Serenoak ibiltzen ziren, gauez. Elkarte gastronomikoetara joaten zen jendea, 22:00etatik aurrera ezin zelako kantuan egin tabernetan. Isunak. Pregoilari bat zegoen, danborrarekin ibiltzen zena.

19. Pregoilaria

- **Erref**: BER-301/036
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:58:03. **Bukatu**: 00:58:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Bergaran pregoilari bat zegoen.

20. Fajeroak

- **Erref**: BER-301/037
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:58:46. **Bukatu**: 01:01:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Fajeroak zeuden udaletxean: ardoa zahagiak eramaten zituzten tabernetara, alhondigan pisatu ostean. Anekdota: fajero berri batek pentsatu zuen fajak egiten egin behar zuela lan.

21. Udal langileak

- **Erref**: BER-301/039
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 01:01:18. **Bukatu**: 01:03:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:
Udal langileak. Bulegoan laupabost izango ziren, musikako zuzendaria, txistulariak... Igandero jotzen zuten txistua. Sasoi batean ez zegoen alderdi politikorik Udalean, beti berdinak izaten ziren.

22. Franco Bergarara joan zenekoa

- **Erref**: BER-301/042
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 01:05:43. **Bukatu**: 01:08:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Franco Bergarara joan zenekoa. San Pedroko parrokiako kristoa ikusten egon zen. 50eko hamarkadan izango zen. Soldadu zegoenean, Francoren aurrean desfilatu zuen birritan.

23. Bergarako besarkada

- **Erref**: BER-301/044
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 01:08:39. **Bukatu**: 01:10:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:
Barrenkale ez da asko aldatu. Dendak aldatu dira. Irizar jauregian gerra karlistetan Bergarako besarkada sinatu ote zuten. Maroto eta Espartero.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com